

Ez dit baserri lanak
ezertxo esaten,
ezta ifarrak ere
biotza eztitzen.
Zer ekarriko didan
zoriak ez dakit,
baiña gaurkoz beintzat
poza emen daurkit».

Ene anai zorozko,
ez neri gezurrik:
kaletarrak zabiltze
pake-poz gaberik.
Ni orde baserrian
biotza lasairik,
ez txiro, ez betea,
beti ornidurik.

EREINTZAK

*Ez du gora makala ereintzak. Baserri arloan dabillanak
nai ta ez jakin bear du zein sasoi dan egokiena azia lurrari
enzateko. Iñoiz uts eman litekena duzu, baiña geienez nolako
ereintza alako ernala izan oi da aziak. Ta azi bakoitzari eder
dakio bere erein aroa.*

Doiñu: P. M. Otaño-ren «Limosna txo bat...».

Egun astean ez du nagirik
larratxoriak kantari...
Bizi naia dut non-nai den ere,
sendo nik ere lanari.
Iritxi bai zait erein aroa,

bota bearra dut gari,
uda eltzean izan ditzadan
lau zirikoak ugari.
Txoriak goian eztarri eder,
ni nakion arloari.

Noiz dan didazu galdetzen neri
aziak erein aroa?
Azi bakoitzak dizu benetan
bere sasoi ta giroa:
San Martin-ez da gari azia
botatzeko ordu laxoa;
berdin urtaillez bada zabala,
azak nai du galondoa,
ta babakin bat irar illarak
edertzen dute soroa.

Arto ta potxa ereiten ditut
ederki maiertz lenengoz,
arto arteko pagotxa ere
ondo dator Santiagoz;
San Migeletan ditut bazterrak
betetzen
artaxikiak udaberri du
beraren garaia osoz,
arbi-patatak бага-irá]
lur landuan samur datoz.

Arto-indarrak, arbi-patatak
potxora ditut ereiten,
gari ta olo, belarki danak
aurrera dira botatzen,
berdin aillurbe, pagotx-irukoitz
purran ditugu zabaltzen;
laia zulora ortu babea
oi da geienik egozten.
Alan ta ere, bakoitzak duen
ereinkera duzu onen.

Aziak nai du erein ondoren
alegin aundiko zaintza:
euririk eza, izotz larregi,
zomorro txatxu saputza...
Jagon ezikan laster batean
andcatzen zait ereintza,
nik uste osoz amestu nuen
arbi-sailla naiz artotza.
Jorrai yaukalez bear dut zaindu
erein nun azi bakoitza.

LANDAN ÆNTSALAFI

Astegunez, eskola ondoren sarri, Mikel, mutiko nausiak zaitzen dizkit beiak larre te landetan. Igandez, ordea, elizbearkinzunak osotu ostean, atsegin zait neri ere landeko eguzki te atsedena, nere abereak gordetzerakoan. Zerbait irakurri naiz pentsatuz, arin doakit astia. Bertsolari gisan, neurtitzak ontzea ere laket zait askotan.

Doifiu: « F ruten ari nuzu , ».

Animani berea eman ondorean,
abelgorri zai nago igande goizean.

Abereak dabilzkit belarra bazkatzen,
nik landako pentokan (1) goxo dut atsedean.

Laiño artean sorgin kuku dut eguzki,
pozarekin pakea zelaira dakarzki.

(1) Muiño.